

# Raimundo Sarriegi-ri

## OROIPEN ŠAMURRA

### NERE ADISKIDE RAIMUNDO-RI

Aginduko baliteke egiteko bere imajina edo ichura, egingo nuke biyotz bat.

VICTORIANO IRAOLA

### OROITUKO GERA BETI ZUTZAZ

Soñuak jo azteko musiketakuak  
oroitu bear degu Donostiyakuak,  
guchi arkitzen dira zu ain artakuak.  
¿Nola aztu litezke gizon orlakuak?  
Malkuak darizkigu biyotz guztikuak  
oroitzen geranian zu-tzaz mundukuak.  
¡Artu zaitzala Šamur gure Jaungoikuak  
emanik ontasunak beti betikuak!

JOSE ZAPIRAIN TA IRASTORZA

### RAIMUNDO SARRIEGI JAUNA

Joan dan Apirilla-ren 23.-ko illunabarrean utzi ginduen (ez dakit noiz arte) euskal doňu apaintzalle bikaiñ Raimundo Sarriegi jaunak.

Donostiko seme jatorra zan gizagajua; bere jayoterrija maite

zuben, chituak bere ama bañon ere askotzaz geyago nere ustez; *geta* nork daki zenbateraño beartu zuben bere buruba Donosti maite au goitachatzeko?

Eta, ala ere etzerizkiyon ezer egiten zubenik; berari aditu izan di-yot beiñ baño geyagotan, bere erririk nai zukien diña eziñ maitaturik bizi zala zeuzkan gayak urriyak ziralako.

Beraren esaerak ziran oek, bañan, *gernik* esan bear zigun guri, iñau-tegietako esnalaririk alayena, orren batetan betiko luak menderatu bear zubela? ¡Sarriegi gizagajua!

JUAN IGNACIO URANGA

## SARRIEGI MAISUA ¡ILL DA!

Donostiarren *ibill-neurriya*  
 sortu zubenen maisua,  
 chiki giñala erakutzitzen  
 aritzen ziñan pausua;  
 zure doñuak alaitzen zuben  
 erriya eta ausua,  
 festa denetan zan zure kantu  
 estitsu eta gozua,  
 ala berian gustagarriya  
 atzegiña, erosua,  
 erritarren poz-emallea  
 mugigarri, airosua,

. . . . .  
 ¡¡Zure anima izan dedilla  
 Jaunak beragan jasua!!

JOSÉ ARTOLA

## RAIMUNDO SARREGUI

Con D. Raimundo Sarriegui ha desaparecido una de las representaciones más genuinas del alma donostiarra. Nadie como él ha recogido el espíritu, el aura especial y personalísima que envolvía a las muchedumbres en los días de júbilo y acontecimientos. En estas líneas, breves, concisas, dedicadas a su memoria no cabe una disertación so-